## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## BERRIKUNTZAKO ETA JAKINTZAREN GIZARTEKO DEPARTAMENTUA

### Berrikuntzaren eta Jakintzaren Sustapen Zuzendaritza Nagusia

*Gipuzkoako eskulangintza sektorea sustatzeko plana*

2009ko ekainaren 9an Diputatuen Kontseiluak onartu du ondorengo erabakia:

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Berrikuntzaren eta Jakintzaren Gizarteko Departamentuaren bitartez, Gipuzkoako eskulangintza sektorea sustatzearen aldeko apustu sendoa egin du, sektore horrek batzen dituen bi alderdiak uztartuz, batetik, jarduera ekonomikoa, eta, bestetik, kultur eta gizarte arloko ondarea.

Hori dena «Gipuzkoako eskulangintza sektorea sustatzeko plana» deitu diru laguntza programaren bidez bultzatu nahi da. Programa horren oinarriak eta 2008ko deialdia Diputatuen Kontseiluaren 2008ko ekainaren 17ko Erabakiaren bidez onartu ziren.

Nolanahi ere, estrategia horiek kontuan izan behar dute, alde batetik, egoera jakin bakoitzak zer bilakaera duen, eta, bestetik, Gipuzkoako Eskulangintza Kontseiluak programa horren 2009ko deialdia diseinatzeko orduan adierazitako iritzia.

Hori dela eta, egokitzat jo da oinarri arautzaile batzuk aldatzea, honako alderdi hauek kontuan izanda:

— Gaur egun bizi dugun egoera sozio-ekonomikoa, enpresen hazkunde, lehiakortasun eta iraunkortasun ereduak auzitan jartzen ari dena.

— Aurreko ekitaldiko deialdian lortutako emaitzek izan duten balorazio positiboa.

— Landu beharreko jarduerak eraginkorragoak eta eragimen handiagokoak izan daitezen, hobeto lehenetsi eta gehiago bildu behar dira landu beharreko politikak eta lehentasunak.

Gauzak horrela, erabaki honen biez «Gipuzkoako eskulangintza sektorea sustatzeko plana» delako programaren 3.1, 7.1, 9.1, 13. eta 15.3 oinarri arautzaileak aldatzen dira, sektoreak berak planteatutako beharrei hobeto erantzuteko, administrazio kudeaketan hobekuntza nabarmenak eginda; era berean, aldaketa horiek eginda, diru laguntza horien 2009ko deialdia ere onartzen da.

Ondorioz, Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Departamentuko foru diputatuak proposatuta eta eztabaidatu ondoren, Diputatuen Kontseiluak

ERABAKI DU

*Lehenengo.* Aldatzea Diputatuen Kontseiluak 2008ko ekainaren 17ko Erabakiz (116. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 2008ko ekainaren 18koa) onartutako «Gipuzkoako eskulangintza sektorea sustatzeko plana» diru laguntza programaren 3.1, 7.1, 9.1, 13. eta 15.3 oinarriak, erabaki honen I. eranskinean agertzen den moduan.

*Bigarren.* Onartzea diru laguntzen aipatu programaren 2009ko deialdia, erabaki honen II. Eranskinean agertzen dena.

*Hirugarren.* 2009ko ekitaldiko deialdiari aurre egiteko, baimentzea 254.887,63 euroko gastua, aurrekontuko kontu sail hauen kargura:

1 1110.120.470.00.02 2009 L-Eskulangintzari laguntzea 2009: 51.821,13 €.

## DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE INNOVACION Y SOCIEDAD DEL CONOCIMIENTO

### Dirección General de Promoción de la Innovación y el Conocimiento

*Plan para el Fomento del Sector Artesanal de Gipuzkoa*

En fecha 9 de junio de 2009 el Consejo de Diputados ha aprobado el siguiente Acuerdo:

La Diputación Foral de Gipuzkoa, a través del Departamento de Innovación y Sociedad del Conocimiento, está comprometida en fomentar el sector artesanal guipuzcoano combinando su definición como actividad económica de patrimonio cultural y social.

Y ello se quiere reforzar a través del programa de ayudas «Plan para el Fomento del Sector Artesanal de Gipuzkoa», cuyas bases reguladoras y la convocatoria del año 2008 se aprobaron por Acuerdo del Consejo de Diputados de 17 de junio de 2008.

Sin embargo, esas estrategias tienen que tener en cuenta, por un lado, el devenir de cada realidad y, por otro lado, en este caso, el diálogo establecido en el seno del Consejo de Artesanía de Gipuzkoa, a la hora de diseñar la convocatoria del ejercicio 2009 de dicho programa.

Por ello, se ha considerado oportuno modificar parcialmente sus bases reguladoras teniendo en cuenta los siguientes aspectos:

— La situación socio-económica actual, que está poniendo en cuestión modelos de crecimiento, competitividad y sostenibilidad de las empresas.

— La valoración altamente positiva de los resultados alcanzados en la convocatoria del ejercicio anterior.

— Y una mayor eficacia y eficiencia en las actuaciones a desarrollar, que exige una mejor priorización y concentración de las políticas y prioridades a desarrollar.

En este sentido, mediante el presente acuerdo se modifican puntualmente las bases reguladoras 3.1, 7.1, 9.1, 13 y 15.3 del programa de ayudas «Plan para el Fomento del Sector Artesanal de Gipuzkoa», con el fin de mejorar las respuestas a las necesidades planteadas por el sector, con una mejora sustancial en la gestión administrativa; asimismo, y una vez modificadas las bases, se aprueba la convocatoria de 2009 de las citadas ayudas.

En consecuencia, a propuesta del Diputado Foral de Innovación y Sociedad del Conocimiento y previa deliberación, el Consejo de Diputados,

ACUERDA

*Primero.* Modificar las bases reguladoras 3.1, 7.1, 9.1, 13 y 15.3 del programa de ayudas «Plan para el Fomento del Sector Artesanal de Gipuzkoa», aprobadas por Acuerdo del Consejo de Diputados de 17 de junio de 2008 (BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 116 de 18 de junio), cuya redacción definitiva se adjunta como Anexo I al presente Acuerdo.

*Segundo.* Aprobar la convocatoria correspondiente al ejercicio 2009 del citado programa de ayudas, que se acompaña como Anexo II al presente Acuerdo.

*Tercero.* Autorizar un gasto por importe de 254.887,63 euros para hacer frente a la convocatoria del ejercicio 2009 con cargo a las siguientes partidas presupuestarias:

1 1110.120.470.00.02 2009 L-Apoyo a la Artesanía 2009: 51.821,13 €.

1 1110.120.770.00.07 2009 L-Eskulangintzari laguntzea 2009: 63.066,50 €.

5 1110.120.470.00.02 2010 L-Eskulangintzari laguntzea 2009: 40.000 €.

5 1110.120.770.00.07 2010 L-Eskulangintzari laguntzea 2009: 100.000 €.

*Laugarren.* Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik aurrera izango du eragina erabaki honen bidez onartzen den oinarri erregulatzaileen aldaketak.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako epaitegietan, argitalpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, argitalpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

I. ERANSKINA

*Aldatzea Diputatuen Kontseiluak 2008ko ekainaren 17ko Erabakiz onartutako «Gipuzkoako eskulangintza sektorea sustatzeko planaren» 3.1, 7.1, 9.1, 13 eta 15.3 oinarriak (116. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 2008ko ekainaren 18koa).*

Aldatu egiten dira «Gipuzkoako eskulangintza sektorea sustatzeko plana» diru laguntza programaren 3.1, 7.1, 9.1, 13 eta 15.3 oinarriak, eta honela idatzita gelditzen dira:

*3. oinarria. Diru laguntzaren xede diren jarduerak.*

3.1. Gipuzkoan eskulangintza sektorea sustatzeko planeko laguntzak honako kasu hauek finantzatzeko diru laguntzak izango dira:

a) Eskulangintzako lantegi eta enpresa berriek ibilgetu materialean eta jarduera berria merkaturatzeko gastuetan egiten dituzten inbertsioak.

b) Lehendik dauden eskulangintzako lantegi eta enpresek ibilgetu materialean, web orriak prestatzen eta Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpo egiten diren azoketara joateko egiten dituzten inbertsioak.

c) Eskulangintza sektoreko erakunde adierazgarriek bultzatuta, kudeaketa, merkaturatzea eta berrikuntza hobetzea berariazko xedetzat duten inbertsioak eta proiektuak.

d) Eskulangintza sektoreko elkarte edota erakunde adierazgarrienek azoka edota eskulangintza lehiaketak antolatzea.

e) Gipuzkoako Eskulangintza Tradizional eta Herrikoiaren Errolda Orokorreko lehen atalean izena emandako eta Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Departamentuaren diru laguntza jasotzen duten eskulangintzako pertsona eta lantegientzako laguntzak, Gipuzkoako eskulangintza erakundeek sustatutako azoketan parte hartzeko.

1 1110.120.770.00.07 2009 L-Apoyo a la Artesanía 2009: 63.066,50 €.

5 1110.120.470.00.02 2010 L-Apoyo a la Artesanía 2009: 40.000 €.

5 1110.120.770.00.07 2010 L-Apoyo a la Artesanía 2009: 100.000 €.

*Cuarto.* La modificación de las bases reguladoras aprobada por el presente Acuerdo producirá efectos a partir del día de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Este Acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Diputados, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello, sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

ANEXO I

*Modificación de las bases reguladoras 3.1, 7.1, 9.1, 13 y 15.3 del «Plan para el Fomento del Sector Artesanal de Gipuzkoa», aprobadas por Acuerdo de Consejo de Diputados de 17 de junio de 2008 (BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 116 de 18 de junio).*

Se modifican las bases reguladoras 3.1, 7.1, 9.1, 13 y 15.3 del programa de ayudas «Plan para el Fomento del Sector Artesanal de Gipuzkoa», que quedan redactadas de la siguiente forma:

*Base 3.ª Actuaciones objeto de la subvención.*

3.1. Las ayudas del «Plan para el fomento del sector artesanal de Gipuzkoa» consistirán en subvenciones para financiar los supuestos siguientes:

a) Inversiones en inmovilizado material y gastos de lanzamiento de la nueva actividad que realicen los talleres y empresas artesanales de nueva creación.

b) Inversiones en inmovilizado material, elaboración de páginas web, y asistencia a ferias de fuera del Territorio Histórico de Gipuzkoa que realicen talleres y empresas artesanas existentes.

c) Proyectos específicamente dirigidos a la mejora en áreas de gestión, comercialización o innovación acometidas por organizaciones representativas del sector artesanal.

d) Organización de ferias o certámenes artesanales realizados por asociaciones u organizaciones representativas del sector artesanal.

e) Ayudas a las personas y talleres artesanales inscritas en la Sección 1.ª del Registro General de la Artesanía Tradicional y Popular de Gipuzkoa, para su participación en aquellas ferias promovidas por las organizaciones artesanales de Gipuzkoa y que reciban financiación del Departamento de Innovación y Sociedad del Conocimiento.

*7. oinarria. Balorazio irizpideak.*

7.1. Diru laguntzak zein eskatzaileei emango zaizkien eta zenbatekoak izango diren erabakitzeko, honako irizpide eta balorazio hauek hartuko dira kontuan:

a) 3. oinarriko 3.1. ataleko a) puntuan ezarritako laguntza kasuetarako:

— Jardueraren edo landutako produktuaren izaera tradizional eta herrikoia: 50 puntu.

— Proiektuak sor ditzakeen lanpostuak: 20 puntu.

— Merkaturatzeko aurreikusitako inbertsioa edota gastua: 10 puntu.

— Eskatzen duen pertsonaren edo entitatearen esperientzia/ibilbidea: 10 puntu.

— Eskatzen duen pertsonaren edo entitatearen finantza inplikazioa: 10 puntu.

b) 3. oinarriko 3.1. ataleko b) puntuan ezarritako laguntza kasuetarako:

— Egiten den jardueraren eta lortu nahi diren xedeen arteko koherentzia: 30 puntu.

— Jardueraren edo landutako produktuaren izaera tradizional eta herrikoia: 30 puntu.

— Eskatzen duen pertsonaren edo entitatearen esperientzia/ibilbidea: 20 puntu.

— Eskatzen duen pertsonaren edo entitatearen finantza inplikazioa: 20 puntu.

c) 3. oinarriko 3.1. ataleko c) puntuan ezarritako laguntza kasuetarako:

— Egiten den jarduketak eskulangintza sektorearen enpresa jardueraren hobekuntzarekin eta lehiakortasunarekin duen lotura maila: 40 puntu

— Eskatzen duen entitatearen esperientzia/ibilbidea: 30 puntu.

— Eskatzen duen entitatearen finantza inplikazioa: 30 puntu.

d) 3. oinarriko 3.1. ataleko d) puntuan ezarritako laguntza kasuetarako:

— Gipuzkoako Eskulangintza Tradizional eta Herrikoiaren Errolda Orokorrean, lehen atalean, izena emanda dauden eskulangintzako enpresa partehartzaileen kopurua: 60 puntu.

— Gipuzkoako Eskulangintza Tradizional eta Herrikoiaren Errolda Orokorrean izena emanda dauden eskulangintzako enpresa partehartzaileen kopurua: 25 puntu.

— Eskatzen duen entitatearen esperientzia/ibilbidea: 5 puntu.

— Ekimenaren berritasuna: 5 puntu.

— Eskatzen duen entitatearen finantza inplikazioa: 5 puntu.

e) 3. oinarriko 3.1. ataleko e) puntuan ezarritako laguntza kasuetarako:

— Azokak eskulangintza enpresa edo lantegiaren jarduerarekin duen lotura maila: 40 puntu.

— Eskaera egiten duen eskulangintza enpresaren edo lantegiaren esperientzia/ibilbidea. 30 puntu.

— Eskaera egiten duen eskulangintza enpresaren edo lantegiaren finantza inplikazioa: 30 puntu.

*Base 7.ª Criterios de valoración.*

7.1. La selección entre las solicitudes y la cuantificación de las ayudas, se efectuará de conformidad con los siguientes criterios y ponderación:

a) Para los supuestos de ayudas establecidos en el punto a) del apartado 3.1 de la Base 3.ª:

— Carácter tradicional y popular de la actividad o del producto elaborado: 50 puntos.

— Generación de empleo previsto: 20 puntos.

— Inversión y/o gasto de lanzamiento previsto: 10 puntos.

— Experiencia/trayectoria anterior de la persona o entidad solicitante: 10 puntos.

— Implicación financiera de la persona o entidad solicitante: 10 puntos.

b) Para los supuestos de ayudas establecidos en el punto b) del apartado 3.1 de la Base 3.ª:

— Coherencia entre la actuación a desarrollar y los objetivos a alcanzar: 30 puntos.

— Carácter tradicional y popular de la actividad o del producto elaborado: 30 puntos.

— Experiencia/trayectoria anterior de la persona o entidad solicitante: 20 puntos.

— Implicación financiera de la persona o entidad solicitante: 20 puntos.

c) Para los supuestos de ayudas establecidos en el punto c) del apartado 3.1 de la Base 3.ª:

— Grado de incardinación de la actuación desarrollada con la mejora y la competitividad de la actividad empresarial del sector artesanal: 40 puntos

— Experiencia/trayectoria anterior de la entidad solicitante: 30 puntos.

— Implicación financiera de la entidad solicitante: 30 puntos.

d) Para los supuestos de ayudas establecidos en el punto d) del apartado 3.1 de la Base 3.ª:

— Número de empresas artesanas participantes inscritas en el Registro General de la Artesanía Tradicional y Popular de Gipuzkoa, en su Sección Primera: 60 puntos.

— Número de empresas artesanas participantes inscritas en el Registro General de la Artesanía Tradicional y Popular de Gipuzkoa: 25 puntos.

— Experiencia/trayectoria anterior de la entidad solicitante: 5 puntos.

— Novedad de la iniciativa: 5 puntos.

— Implicación financiera de la entidad solicitante: 5 puntos.

e) Para los supuestos de ayudas establecidos en el punto e) del apartado 3.1 de la Base 3.ª:

— Grado de incardinación de la feria con la actividad propia de la empresa o taller artesano: 40 puntos.

— Experiencia/trayectoria anterior de la empresa o taller artesano solicitante: 30 puntos.

— Implicación financiera de la empresa o taller artesano solicitante: 30 puntos.

*9. oinarria. Diru laguntzen portzentajeak eta gehieneko zenbatekoak.*

9.1. Diru laguntzen portzentajea erabakitzeko, 7. oinarrian azaldutako hautatzeko irizpideak erabiliko dira, baina segidan adierazten diren portzentaje eta zenbatekoak gehienekotzat jota:

a) Eskulangintzako lantegi eta enpresa berriak sortzea: Diru laguntza kostu hautagarrien %60rainokoa izan daiteke; sortutako enplegu bakoitzeko ezingo da 5.000 euro gainditu; eta enpresa berri bakoitzeko gehienez ere 16.000 euro eman ahal izango dira.

b) Lehendik dauden eskulangintzako lantegi eta enpresetan ekipamendu inbertsioak egiteko eta web orriak sortzeko laguntzak: Diruz lagun daitekeen kostuaren %40rainokoak izan daitezke, eta eskulangintzako lantegi bakoitzeko gehienez ere 5.000 euro eman ahal izango dira; web orriak egiteko diru laguntza ez da 1.000 eurokoa baino handiagoa izango.

c) Gipuzkoan zein Gipuzkoatik kanpo egiten diren azoketan parte hartzea. Gipuzkoatik kanpoko azoketara joateko bada, diruz lagundu daitekeen kostuaren %50 adinakoa izango da diru laguntza, gehienez ere 2.000 euro. Diruz lagundu daitekeen gastutzat joko da zoruaren eta erakusmahaiaren alokairu faktura, azokaren antolatzaileak egindakoa.

Gipuzkoako azoken eta Gipuzkoako eskulangintza erakundeek sustatutako azoken kasuan, azokan izena emateko kostuaren %70era arte finantzatuko da, gehienez ere 1.500 euro.

Eskulangintza lantegi bakoitzari ezingo zaio 5.000 euro baino gehiago eman b eta c ataletan emandakoa batuta.

d) Eskulangintzaren alde diharduten elkarte edo erakundeek bultzatutako kudeaketa, merkaturatzea eta berrikuntza hobetzeko laguntza proiektuak: %70eraino eta gehienez ere 15.000 euro.

e) Eskulangintzako azokak edo lehiaketak antolatzea: Kostuen %40raino, gehienez ere 11.000 euro azokako.

Eskualde mailan adierazgarriak diren erakundeek azokak antolatzeko gehienez ere 6.000 euro emango dira azoka bakoitzeko.

*13. oinarria. Diru laguntzen arteko bateragarritasuna edo bateraezintasuna.*

13.1. Oinarri hauetan arautukato diru laguntzak bateragarriak dira helburu bererako edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu nazional, europar edo nazioartekok emandako beste diru laguntza edo baliabide batzuekin,, betiere diru laguntzak guztira ez badira diruz lagundutako jardueraren kostuaren %100 baino handiagoak.

13.2. Oinarri hauen arabera emandakoekin bateragarriak diren diru laguntzak jasotzen dituzten onuradunek horren berri eman beharko diote laguntzak ematen dituen organoari modu frogagarrian.

*15. oinarria. Diruz lagundu daitezkeen gastuak eta diru laguntzaren justifikazioa.*

15.3. Diruz lagundutako proiektua edo jarduera amaitutakoan, pertsona edo entitate onuradunek justifikazio kontu bat aurkeztu beharko dute, honako agiri hauek erantsita:

— Diru laguntza emateko ezarritako baldintzak bete izana frogatzen duen jarduera memoria.

*Base 9.ª Porcentajes y cuantías máximas de las ayudas.*

9.1. La determinación final de los porcentajes de subvención se realizará en función de los criterios de selección expuestos en la Base 7.ª considerándose como máximos los siguientes:

a) Apoyo a la creación de nuevos talleres y empresas artesanales: Hasta un 60% de los costes elegibles, no pudiendo superar los 5.000 euros por empleo creado, con un máximo de 16.000 euros por nueva empresa.

b) Apoyo a la inversión de equipamiento de talleres y empresas artesanales existentes y elaboración de páginas Web: Hasta un 40% del coste total subvencionable, con un máximo de 5.000,00 euros por taller artesanal, sin que la subvención en concepto de página Web supere los 1.000 euros.

c) Asistencia a ferias tanto fuera como en el propio Territorio Histórico de Gipuzkoa. En el caso de asistencia a ferias fuera de Gipuzkoa, la ayuda alcanzará el 50% del coste total subvencionable, con un límite de 2.000 euros. Solamente se considerará como coste subvencionable la factura correspondiente al alquiler del suelo y stand emitida por la entidad organizadora de la misma.

En el caso de ferias en Gipuzkoa y promovidas por las organizaciones artesanales guipuzcoanas se financiará hasta el 70% de los costes de inscripción en la feria, hasta un máximo de 1.500 euros.

El importe acumulado de las ayudas por taller artesanal, apartados b y c, no podrá superar la cuantía de 5.000 euros.

d) Otros proyectos de apoyo a la mejora de la gestión, comercialización o innovación acometidas por asociaciones o entidades que actúen a favor de la artesanía: Hasta el 70%, con un máximo de 15.000 euros.

e) En el caso de organización de ferias o certámenes artesanales: Hasta un 40% de los costes, con un máximo de 11.000 euros por feria.

La organización de ferias por parte de organizaciones representativas de ámbito comarcal, supondrá un máximo de 6.000 euros por feria.

*Base 13.ª Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones.*

13.1. Las subvenciones reguladas en las presentes bases serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales siempre que el conjunto de todas las ayudas no supere el 100% del coste de la actuación subvencionada.

13.2. La entidad o persona beneficiaria que obtuviere una subvención compatible con las otorgadas al amparo de estas bases deberá comunicarlo de modo fehaciente al órgano concedente.

*Base 15.ª Gastos subvencionables y justificación de la subvención.*

15.3. Tras la finalización del proyecto o actividad subvencionada, las personas y entidades beneficiarias deberán presentar una cuenta justificativa con la siguiente documentación:

— Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención.

— Jardueraren gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta dokumentua identifikatuta, eta zenbatekoa, jaulkipen data eta, dagokion kasuan, ordainketa data adierazita. Diru laguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, horrekiko desbiderapenak adieraziko dira.

— Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko jaso diren beste sarreren edo diru laguntzen zerrenda, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

— Hala badagokio, aplikatu gabeko soberakinen kasuan, itzulketaren ordainagiria, bai eta horien ondoriozko interesena ere.

— Gastuak fakturekin eta trafiko juridikoan edo administrazioan pareko froga balioa duten gainerako dokumentuekin (orijinalak edo fotokopia konpultsatua) eta, hala badagokio, ordainketa egiaztatzen duten dokumentuekin justifikatuko dira.

— Agiri eguneratuak (datak ez du likidazio eskaeraren aurreko sei hilabete baino lehenagokoa izan behar), zerga eta Gizarte Segurantzako betebeharretan egunean egotea egiaztatzen dutenak. Horien ordez organo kudeatzaileari espresuki emandako baimena eman daiteke, eskumendun administrazioak datu horiek zuzenean laga diezazkion.

— Pertsona eta entitate onuradunek hornikuntzetan, ekipo ondasunetan edo aholkularitza nahiz laguntza teknikoko enpresen zerbitzuetan 12.000 eurotik gorako gastu subentzionagarriak egin badituzte, eskatutako hiru eskaintzen artean egindako hautaketa egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko dute, non eta gastua ez den egin diru laguntza eskatu aurretik.

II. ERANSKINA

*«Gipuzkoako eskulangintza sektorea sustatzeko plana» laguntza programaren 2009ko deialdia.*

*1. Oinarri erregulatzaileak.*

Deialdi honetako laguntzen oinarriak Diputatuen Kontseiluaren 2008ko ekainaren 17ko Erabakiz onartu ziren (116. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 2008ko ekainaren 18koa). Oinarri horiek Diputatuen Kontseiluaren 2009ko ekainaren 9ko Erabakiz zati batean aldatu dira.

*2. Finantzazioa.*

2.1. Deialdi honetan 254.887,63 euroko laguntza emango da guztira, Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2009ko Aurrekontu Orokorreko kontu sail hauen arabera banatuta:

1 1110.120.470.00.02 2009 L-Eskulangintzari laguntzea 2009: 51.821,13 €.

1 1110.120.770.00.07 2009 L- Eskulangintzari laguntzea 2009: 63.066,50 €.

5 1110.120.470.00.02 2010 L- Eskulangintzari laguntzea 2009: 40.000 €.

5 1110.120.770.00.07 2010 L- Eskulangintzari laguntzea 2009: 100.000 €.

2.2. Eskumena duen organoak goian adierazitako guztirako zenbateko hori handitu dezake deialdi berririk egin behar izan gabe, diru laguntzak emateko ebazpena onartu aurretik, betiere, dagokion aurrekontu aldaketa onartuta.

— Una relación clasificada de los gastos e inversiones de la actividad, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago. En caso de que la subvención se otorgue con arreglo a un presupuesto, se indicarán las desviaciones acaecidas.

— Un detalle de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada, con indicación del importe y su procedencia.

— En su caso, carta de pago de reintegro en el supuesto de remanentes no aplicados así como de los intereses derivados de los mismos.

— Los gastos se justificarán con facturas y demás documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa, en original o fotocopia compulsada y en su caso con la documentación acreditativa del pago.

— Documentación acreditativa actualizada (cuya fecha no preceda en más de seis meses a la solicitud de liquidación) del cumplimiento de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social, que podrá sustituirse por la autorización expresa al órgano gestor para que la Administración competente en cada caso le ceda directamente los datos correspondientes.

— En el supuesto de haber incurrido las personas y entidades beneficiarias en gastos subvencionables por importe superior a 12.000 euros en suministros de bienes de equipo o prestación de servicios por empresas de consultoría o asistencia técnica, documentación acreditativa de la elección realizada entre las tres ofertas solicitadas, salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención.

ANEXO II

*Convocatoria de las ayudas del programa «Plan para el fomento del sector artesanal de Gipuzkoa», ejercicio 2009*

*1. Bases reguladoras.*

Las ayudas objeto de la presente convocatoria vienen reguladas en el Acuerdo del Consejo de Diputados de 17 de junio de 2008 (BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 116 de 18 de junio), con las modificaciones introducidas por Acuerdo del Consejo de Diputados de 9 de junio de 2009.

*2. Financiación.*

2.1. La cuantía total de las subvenciones a conceder en esta convocatoria será de 254.887,63 euros, distribuidos entre las siguientes partidas de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2009:

1 1110.120.470.00.02.2009 L-Apoyo a la Artesanía 2009: 51.821,13 €.

1 1110.120.770.00.07.2009 L-Apoyo a la Artesanía 2009: 63.066,50 €.

5 1110.120.470.00.02.2010 L-Apoyo a la Artesanía 2009: 40.000,00 €.

5 1110.120.770.00.07.2010 L-Apoyo a la Artesanía 2009: 100.000,00 €.

2.2. La cuantía total indicada podrá incrementarse por el órgano que tenga atribuida la competencia sin necesidad de una nueva convocatoria en cualquier momento anterior a la resolución de concesión y, en su caso, previa aprobación de la modificación presupuestaria que proceda.

2.3. Nolanahi ere, diru laguntzek gastu arruntak nahiz inbertsiokoak finantzatu ditzaketenez, jasotzen diren eskaerak ikusita eta proiektuetan nagusia den gastu mota kontuan hartuta, beharrezko diren aurrekontu egokitzapenak izapidetuko dira IV. eta VII. kapituluetako dagozkion kontu sailen artean, emango diren laguntzak diruz lagundutako gastuaren izaerara egokitzearren.

Horrenbestez, ahalmena ematen zaio Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko foru diputatuari, zenbatekoa edozein izanik ere, gastu arrunteko kapituluan hasieran baimendutako gastua murrizteko eta dagokion gastua baimentzeko aipatutako egokitzapenak egin ondoren gelditu diren VII. kapituluko kontu sailetan.

2.4. Halaber, ahalmena ematen zaio Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko foru diputatuari, programa honetako aurrekontu kredituetan zenbatekorik soberakoa izanez gero kredituak gutxitzeko baimena eman dezan, hartara departamentuaren laguntzen programa honen edo beste baten aurrekontuko partidei transferentzia egiteko.

*3. Deialdiko eskaerak aurkeztea.*

3.1. Jarduera eremu bakoitzerako 2. oinarrian aurreikusitako eskakizunak betetzen dituzten pertsona eta erakundeek aurkeztu ahal izango dute eskaera.

3.2. Eskaerak aurkezteko epea deialdiaren argitalpen egunean hasiko da eta 2009ko uztailaren 17an amaituko da.

3.3. Diruz lagundutako jarduerei 2009ko urtarrilaren 1az geroztik eman behar zaie hasiera, oro har.

*4. Proiektuak gauzatzeko data.*

Erakunde onuradunek 2010eko apirilaren 30erako gauzatu behar dituzte diruz lagundutako proiektuak.

*5. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak.*

5.1. Eskaerak honako informazio hau bildu beharko du:

a) Eskatzailearen datuak.

b) Diru laguntza eskatzen den proiektu edo jardueraren azalpen memoria.

3. oinarriko 3.1 ataleko d) puntuan aurreikusitako jardueketetan datu hauek sartu beharko dira:

— Parte hartzen duten eskulangintza enpresa kopurua.

— Gipuzkoako Eskulangintza Tradizional eta Herrikoiaren Errolda Orokorrean, izena emanda dauden eskulangintzako enpresa partehartzaileen kopurua, lehen atala bereizita.

— Azoka egunak.

— 3. oinarriaren 3.2 atalean adierazitako baldintzak betetzeko prozesua justifikatzeko agiriak.

c) Aurkeztutako proiektuaren aurrekontu xehatua.

d) Aldibereko diru laguntzen ziurtagiria.

e) Eranskinean edo eskaera telematikoan jasotako ereduaren araberako aitorpen erantzulea, 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, entitate edo pertsona onuradun izaera lortzeko 12. artikuluan ezartzen dituen debekuetan sartuta ez egotea egiaztatzen duena.

2.3. No obstante, dado que las subvenciones pueden financiar gastos corrientes o de inversión, a la vista de las solicitudes recibidas y en función del tipo de gasto predominante en los proyectos, se tramitarán las adaptaciones presupuestarias que resulten procedentes entre las partidas señaladas del capítulo IV y las que correspondan del capítulo VII, a fin de adecuar las ayudas a conceder a la naturaleza del gasto subvencionado.

En relación con ello, se faculta expresamente al Diputado Foral de Innovación y Sociedad del Conocimiento para, independientemente de su importe, reducir el gasto inicialmente autorizado en el capítulo de gasto corriente y autorizar el gasto correspondiente en las partidas del capítulo VII resultantes de las citadas adaptaciones.

2.4. Así mismo, se faculta expresamente al Diputado Foral de Innovación y Sociedad del Conocimiento para que, en el caso de producirse cantidades excedentarias en los créditos presupuestarios del presente programa, autorice la minoración de dichos créditos a efectos de su transferencia a otras partidas presupuestarias de éste u otro programa de ayudas del departamento.

*3. Presentación de solicitudes a la convocatoria.*

3.1. Podrán presentar solicitud aquellas personas y entidades que cumplan los requisitos previstos para cada ámbito de actuación en la Base 2.ª

3.2. El plazo de presentación de solicitudes se iniciará el día de publicación de la convocatoria y finalizará el día 17 de julio de 2009.

3.3. Con carácter general, las actuaciones objeto de subvención deben iniciarse a partir del 1 de enero de 2009.

*4. Fecha de ejecución de los proyectos.*

Las personas y entidades beneficiarias deberán concluir el 30 de abril de 2010 los proyectos objeto de subvención.

*5. Documentación a presentar con la solicitud.*

5.1. En la solicitud deberá incluirse la siguiente información:

a) Datos del solicitante.

b) Memoria descriptiva del proyecto o la actividad para la que se solicita la subvención.

En el caso de las actuaciones previstas en el punto d) del apartado 3.1 de la Base 3.ª:

— Número de empresas artesanas participantes.

— Número de empresas artesanas participantes inscritas en el Registro General de la Artesanía Tradicional y Popular de Gipuzkoa distinguiendo Sección Primera.

— Fechas de celebración de la feria.

— Justificación documental del proceso seguido para el cumplimiento de los requisitos que vienen recogidos en la Base 3.ª, apartado 3.2.

c) Presupuesto detallado del proyecto presentado.

d) Certificado de ayudas concurrentes.

e) Declaración responsable, conforme al modelo que se incluye en el anexo o en la solicitud telemática, de no hallarse incursa en ninguna de las prohibiciones para obtener la condición de persona o entidad beneficiaria establecidas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

f) Agiri eguneratuak (datak ez du diru laguntza eskaeraren aurreko sei hilabete baino lehenagokoa izan behar), zerga eta Gizarte Segurantzako betebeharretan egunean egotea egiaztatzen dutenak. Agiri horiek aurkeztu ordez ahalko da organo kudeatzailea berariaz baimendu, hark datu horiek zuzenean eska diezazkien datuok emateko eskumena duten administrazioei.

5.2. Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Departamentuak aurkezten diren proiektuak zuzen baloratzeko eta ebazpena emateko behar duen informazio guztia eskatu ahal izango die eskatzaileei. Informazio hori ez badu jasotzen 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 71. artikuluan aurreikusten duen hamar eguneko epean, eskaera bertan behera utzi dela joko da eta besterik gabe artxibatuko da, aipatu legeak 42. artikuluan dioen eran ebazpen administratiboa eman ondoren.

*6. Eskaerak ebazteko epea eta jakinarazpena.*

6.1. Eskaera onartuz edo ezetsiz hartuko den ebazpena 6 hileko epean jakinarazi behar da, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

6.2. Aipatu ebazpena eskatzaile bakoitzari jakinaraziko zaio, eta halaber, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzko 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauak 17. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

ERANSKINA

AITORPEN ERANTZULEA

.......................................... jaunak/andreak, adinez nagusiak, ............ zk.ko NA duenak, ........................................(e)ko ............................................. kalean, ........ zk.an bizi denak, ...........................................ren ordezkaritzan (................zk.ko IFK eta .................... helbide soziala duena) adierazten du ez bera ezta berak ordezkatzen duen entitatea ere ez daudela sartuta 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 12 artikuluan aurreikusten dituen onuradun izaera lortzea eragozten duten egoeretan.

(Lekua, data eta sinadura)

Donostia, 2009ko ekainaren 9a.—Iñigo Oliveros Bruneton, idazkari teknikoa.

(500488) (7382)

f) Documentación actualizada (cuya fecha no preceda en más de seis meses a la solicitud de subvención) que acredite el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social. Dicha documentación podrá sustituirse por la autorización expresa al órgano gestor para que recabe directamente los referidos datos de las administraciones competentes para emitirlos.

5.2. El Departamento de Innovación y Sociedad del Conocimiento podrá pedir a los solicitantes cuanta información entienda necesaria para la correcta evaluación y resolución de los proyectos que se presenten. De no recibirse dicha información en el plazo de diez días previsto en el artículo 71 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, se le tendrá por desistido de la solicitud, archivándose sin más trámite previa resolución administrativa dictada en los términos señalados por la citada Ley en su artículo 42.

*6. Plazo de resolución de las solicitudes y notificación.*

6.1. El plazo de notificación de la resolución de concesión o, en su caso, de denegación será de 6 meses a contar a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria.

6.2. Dicha resolución se notificará individualmente a cada solicitante, sin perjuicio de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa en los términos del artículo 17 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

ANEXO

DECLARACIÓN RESPONSABLE

D/Dª ..................................................., mayor de edad, con DNI n.º ................ y domicilio en ............................................ en representación de ......................................................, con CIF ............. y domicilio social en ............................., declara que no concurren ni en él/ella ni en la entidad a la que representa ninguna de las circunstancias que impiden obtener la condición de persona o entidad beneficiaria, previstas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

(Lugar, fecha y firma)

Donostia-San Sebastián, a 9 de junio de 2009.—El secretario técnico, Iñigo Oliveros Bruneton.

(500488) (7382)